

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ETURA ETA GEBARAKO ADMINISTRAZIO BATZARRAK

“Txorrrarana” izeneko VI-10.206 ehiza-barrutiko aprobetxamendu zinegetikoaren lehiaketa publikoa

Etura eta Gebarako Administrazio Batzarrek, batzar orokorrean, “Txorrrarana” izeneko VI-10.206 ehiza-barrutiaren aprobetxamendu zinegetikoaren esleipena lehiaketa publiko baten bidez egitea onartu zuten.

LEHIAKETA

- 1- Esleipena ematen duen erakundea: Etura eta Gebarako Administrazio Batzarrak.
- 2- Kontratuaren arrazoa: Txorrrarana izeneko VI-10.206 ehiza-barrutiaren aprobetxamendu zinegetikoa.
- 3- Tramitazioa eta prozedura: premiazko prozedura, prozedura irekia, lehiaketaren bidez.
- 4- Oinarrizko lizitazio-aurrekontua: hogeita hamabi euro-zentimorekiko mila ehun eta hamabi euro (1.112,32 euro), BEZa barne.
- 5- Esleipenaren oinarri izango diren irizpideak:
 - a. Bertako ehiztarien ordezkari eta parte hartzea ehiza-barrutiaren kudeaketa eta aprobetxamenduan: 5 puntu arte.
 - b. Erantzukizun zibileko polizaren bermea: 3 puntu arte.
 - c. Diru eskaintza: Puntu 1 arte.
- 6- Behin-betiko bermea: esleipenaren azken prezioaren ehuneko 5a, BEZa kanpo.
- 7- Informazioa eta agirien lorpena: 652.746.382 telefono zenbakira deituz (16:00ak eta 20:00ak arteko ordutegian), iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo zortzi (8) egun naturaletan.
- 8- Alokatzeko denboraldia: hamar (10) urte.

“Txorrrarana” izeneko VI-10.206 ehiza-barrutiaren aprobetxamendu zinegetikorako esleipena aurrera eramango da, baldin eta Arabako Foru Aldundiko Sail eskudunak berritze-espeditentea onartzen badu.

Eturan, 2019ko abuztuaren 12an

Erregidore-lehendakaria

FRANCISCO URIARTE ARCAUZ